

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	MAKINERIA ERABILIZ GARBITZEKO TEKNIKA ETA PROZEDURAK	Iraupena	60
Kodea	MF1088_1:		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Gizarte-arreta		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Zoru, paret eta sabaien garbiketa, tratamendua eta mantentze-lanak eraikin eta lokaletan.	Iraupena	30
	Barruko altzarien garbiketa		30
	Kristalen garbiketa eraikin eta lokaletan		30
	Eraikin eta lokaletan gainazal eta altzariak garbitzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1088\_1. GAINAZALAK GARBITZEA ETA TRATATZEA MAKINERIA ERABILIZ ERAIKIN ETA LOKALETAN.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Gainazalak garbitu eta tratatzeko makina, gehigarri eta produktuak identifikatu eta hautatzea, gainazalak estaltzen dituzten materialak garbitu eta tratatzeko prozeduren arabera.
- E11.1 Zikinkeria-, garbitasun, desinfekzio- eta higiene-kontzeptuak adieraztea, makinekin egiteko ekintzak egin aurretiko uneari dagozkionak.
- E11.2 Sortzen eta pilatzen diren zikinkeria-motak identifikatzea garbitu beharreko gainazalak estaltzen dituzten materialen arabera, eta garbiketako esku-hartze bereziak sortzea.
- E11.3 Garbitu beharreko gainazalak osatzen dituzten materialen ezaugarri fisikoak identifikatzea, eta haien tratamendua eta garbiketa zehaztea.
- E11.4 Zoruak garbitu eta tratatzeko prozedurak azaltzea (ekortzea, garbitzea, desugertzea, argizaria ematea, distiraraztea/beiraztatzea, xurgatzea, orraztea eta abar), eta aplikatzen diren gainazal-motekin erlazionatzea.
- E11.5 Garbitzeko makina, gehigarri eta tresnak deskribatzea, haien funtzioak, erabilera-arauak, aplikazio-prozesuak eta makina bakoitza erabiltzeak izan litzakeen arrisku espezifikoak aztertuz.
- E11.6 Makinaria erabiliz gainazala garbitzeko kasu praktiko batean:
- Langilearen lan-eremuan pertsonak izatea balioztatzea, eta egoeraren arabera zehaztea jarduera.
  - Erabili beharreko makina hautatzea, egin beharreko zereginaren arabera.
- E11.7 Garbitzeko produktuak hautatzeko eta aplikatzeko kasu praktiko batean:
- Zoruak eta ehun-altzariak garbitzeko produktuak identifikatzea, ingurumena kaltetzen ez dutela kontuan hartuta.
  - Garbitzeko produktuak haien aplikazioen arabera sailkatzea, eta dituzten propietateak, abantailak eta erabiltzeko moduak azaltzea.
  - Garbitzeko produktuen etiketak eta segurtasun-fitxak interpretatzea, eta jarduteko modua deskribatzea horren arabera.
  - Erabili beharreko produktua hautatzea garbitu beharreko gainazalaren arabera, eta aukeraketa hori justifikatzea.
  - Garbitzeko produktua manipulatzeko eta dosifikatzeko haren erabileren arabera, itxaroten den emaitza lortzeko.
- E11.8 Garbitzeko produktuak biltegiatzeko kondizioak deskribatzea, haien ezaugarriak kontuan izanda.
- A2: Zoruatarako ekortzeko makinak identifikatu, hautatu eta maneiatzea, garbitu beharreko gainazalaren arabera.
- E12.1 Ekortzeko makina motak eta garbitzeko gehigarri eta tresnak deskribatzea, haien aukerak, erabiltzeko modua eta aplikatzeko prozesua adieraziz.
- E12.2 Ekortzeko makina erabiltzeari lotutako arrisku espezifikoak eta haien prebenitzeko moduak adieraztea.
- E12.3 Ekortzeko makina motak alderatzea, haietako bakoitzak, garbitu beharreko gainazalaren eta espazioaren arabera, dituen abantailak eta eragozpenak aztertuz. E12.4 Ekortzeko makina bat ikuskatu eta haren egoera egiaztatzeke egin beharreko urratsak adieraztea.
- E12.5 Ekortzeko makinekin garbitzeko kasu praktiko batean:
- Garbitu beharreko gainazalak osatzen dituzten materialen ezaugarri fisikoak identifikatzea, ekortzeko makina egokia hautatzeko egin beharreko zereginaren arabera.
  - Fabrikatzailearen jarraibideen arabera maneiatzea makina.



- Aplikazio-prozesu deskribatzea, eta makina, gehigarriak eta tresnak hautatzea horren arabera.
- Produktua prestatzea erabilera- eta dosifikazio-argibideei jarraituz eta oinarrizko segurtasun-printzipioak kontuan hartuz.
- Makina zehaztasunez maneiatzea, haren funtzionamendua eta behar dituen produktu edo materialak kontrolatuz.
- Erabiltzen diren makina, gehigarri eta tresnak erabilera-baldintza egokietan izatea, eta behar direnean erabiltzeko moduan uzten direla bermatzea.

E17.4 Lana egin ostean emaitzak balioztatzeko modua adieraztea, eta akatsak zuzendu beharreko modua eta egoerak zehaztea.

E17.5 Produktu toxikoen hondakinak ezabatzearen onurak argumentatzea, ingurumena babesteko araudia oinarri hartuta.

E17.6 Ur- eta energia-kontsumo orekatuaren ondorioak deskribatzea, erabilera arduratsua kontuan hartuta.

A8 Garbitzeko makinak aztertze lanak deskribatzea, haien ezaugarri teknikoaren arabera funtzionatzen dutela bermatzeko.

E18.1 Makina-mota bakoitzak ezarritako programaren arabera behar dituen eragiketak, ikusizko azterketak eta garbiketak azaltzea.

E18.2 Makineriarentzat prebentziozko mantentze-, segimendu- eta ikuskapen-plan bat abian jartzearen abantailak azaltzea, eta plan hori garatzeko modua ezartzea.

E18.3 Makinak erabilera-baldintza egokietan mantentzeko (behar diren unean erabiltzeko moduan) zereginak adieraztea.

## Edukiak

### 1. Makinekin garbitzea: Sailkapena, osagaiak eta mantentze-lanak.

- Makina-motak
- Makinen osagaiak
  - o Osagai elektrikoak
  - o Osagai mekanikoak
  - o Gainerako osagaiak
- Makinen mantentze-lanetarako teknikak
  - o Mantentze-lan prebentiboak: prebentziozko mantentze-planen interpretazioa
  - o Mantentze-lan zuzentzaileak: matxuren irismena baloratzea.
  - o Makineria biltegitratzea.
- Makineriaren fitxa teknikoak eta seinaleak interpretatzea.

### 2. Garbitzeko produktuen erabilera: Identifikazioa, ezaugarriak eta biltegitratzea.

- Makinekin garbitzeko produktu motak.
- Makinekin garbitzeko produktuak erabiltzeko irizpideak:
  - o Produktuen dosifikazioa. Dosifikagailu-motak.
  - o Garbitzeko produktuen biltegitratzea.
  - o Garbitzeko produktuak manipulatzeko izan litzakeen osasun-arriskuak.
  - o Toxikotasun-kasuetan jarduteko modua.
- Etiketen interpretazioa: etiketetako sinbologia.
- Ingurumenaren gaineko eraginak: ingurumen-jardunbide egokiak.

### 3. Makinekin garbitzeko prozesuak:

- Lanaren antolaketa:
  - o Jasotako argibideak interpretatzea eta gauzatzea.
  - o Ingurunea prestatzea eta ordenatua izatea.
  - o Garbiketa-lanak egitea langileak beren lanpostuetan daudela edota inguruetan daudela (pertsonek igarotzen diren bitartean).
- Makinekin garbitzeko teknikak:
  - o Ekortzea.
  - o Garbitzea.
  - o Desugertzea.
  - o Argizaria ematea.
  - o Distiraraztea/beiratzatzea.
  - o Xurgatzea.
  - o Orraztea..
  - o Tratamendu-motak bereiztea.
  - o Tratamendu bakoitzeko jardueren sekuentziak.
  - o Tratamenduak gauzatzea.
  - o Gauzatutako tratamenduak egiaztatzea.

### 4. Tresna, erreminta eta gehigarriak hautatzea, erabiltzea eta kontserbatzea

- Tresna-, erreminta- eta gehigarri-motak identifikatu eta hautatzea.
- Tresna, erreminta eta gehigarrien erabilera, kokapena eta aplikazioa.
- Tresna, erreminta eta gehigarrien kontserbazioa.

### 5. Langileen segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten neurriak

- Arriskuen identifikazioa:

- Garbiketa-jarduerei dagozkienak.
- Garbiketa-jarduerak egiten diren lantokiari dagozkionak.
- Makinekin lan egiteak dakartzan arrisku espezifikoak.
- Norbera babesteko ekipoak identifikatzea eta erabiltzea.
- Laneko ingurunean pertsonak daudenerako gutxieneko baldintzak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

#### Sartzeko irizpideak

Sartzeko irizpiderik gabe

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan.